



### 3 ELKARTEAK

## Rocioko Ama Birginaren erromeria asteburua

Semblante Andaluz elkarteak XXI. urtez Rocioko Ama Birginaren omenezko erromeria egingo du Atsobakar parkean asteburu osoan zehar. Honetara inguruko andaluziar elkarteetako kideak gonbidatu dituzte eta ohi bezala, kanta, dantza eta jai giroa izango da nagusi. Igandean, Arantzazuko Ama elizan egingo dute meza rocierea eta herriko kaleetan barrera eramango dute prozesioan Rocioko Ama Birgina.

### 5 INGURUMENA

## Elikadura jasangarriaz aritu ziren ikasleak plenoan

Herriko ikastetxeetan Agenda 21 egitasmoaren baitan ingurumenarekin zerikusia duten gaiak lantzen dituzte ikasleak. Ikasturte honetan elikadura jasangarriaz hausnartu dute eta asteazkenean udal ordezkariekin egindako bilkuran hainbat eskaera eta proposamen egin zituzten. Bertako produktuen kontsumoa sustatzeko neurriak, baratzak publikoak edota herriko baserritarren jarduna babesteko neurriak izan ziren eskatutako batzuk.



# San Pedro jaiak ate joka

Esne Beltza, Vendetta eta Berri Txarrak taldeen kontzertuak izango dira

Omenduak Kukuka antzerki eta dantza eskola eta Texas futbol taldea izango dira. Taxio Arrizabalagak, urteetan egin duten lanaren aitortza gisara eta bide horretan jarraitzeko bultzadaxoa eskaintzearen. Egitarauari dagokionez, bigantxak ez dira egongo eta Zezen suzkoa gauero izango da herriko kaleetan barrena.



Festetako egitaraua osatzen lagundu duten elkarteetako kideak izan ziren atzo aurkezpenean.

Azto aurkeztu zuten udal ordezkari eta herriko elkarteetako kideek San Pedro jaien egitaraua. Honakoa Jaietan Blai! forotik sortua dela aipatu zuen Taxio Arrizabalaga zinegotziak. Bileratan 90tik gora proposamen jaso direla aipatu zuen, "eta gehienei tokitxo bat bilatzen saiatu gara".

Egitarauetan berrikuntza "nabariena eta garrantzitsuenak", festa eredu berri baterantz emandako pausoa da. "Inoiz baino festa herriko eta parte hartzaileagoak izango ditugu herriko elkarteetan lanari esker".

Takun elkarte beterranoa da festei dagokienean. Aurtengoan ere, haurrentzako ekitaldiak, zikiro afaria, bertso emanaldia Beñat Gaztelumendi, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Amaia Agirre, Patxi Etxeberria eta Ane Labakarekin, Sorgin Dantza, kantu eta dantza jira, sagardo dastaketa eta erromeria egingo ditu. Sorgin Jaiekoeak, egitarau oparora prestatu dute "umore onez eta ekintzaz bete".

Kukukak koreografia erakusketa antolatuko du. Bel-

tzakeko kideek melé erraldoi bat egingo dute Michelinen eta ostein, errugbiko 3. denboraz gozatzeko aukera izango da.

Aterpeak Sardina Jana egingo du Okendo plazan. Intzakoek, Loidi-Barrengo frontoian pilota partidak izango dituzte igandean eta txapelketako finalak astelehen goizean eta horretaz gain, Emakumezkoen San Pedrotako Pala Txapelketaren lehen edizioa antolatu dute.

Ostadar eta Dinbi-Bandak astelehen arratsaldean, haur, gazte eta familia guztiarentzat, herri jolas ibiltariak egingo dituzte.

Biyak-Bateko jubilatuek txarangarekin batera konpartsa desfilea egingo dute. Virgen de Guadalupe elkarteak berriz, Extremadurako kultura ezagutzera emateko, danbolin jole tradizionalak eta "migak" dastatzeko aukera eskainiko du astelehenean. ASEBAL Errumaniar Elkarteak jaki tipikoak ekarriko ditu ere.

Erketzek, festetako egunetarik kanpo bada ere, euren dan-

tzak Okendon eskainiko dituzte ekainaren 21ean.

### Kaleko ekintzak

Herritarrek eskatu bezala, ekintza gehienak kalean izatea bilatu du Udalak.

Txikieneztat, urteroko haur parkeez edo apar festaz gain, Pirritx, Porrotx eta Marimots, Ane Piratarekin batera izango dira Andatza plazan astelehen arratsaldean. Hauek Jalgunerekin, "Pausoka Pausoka" dantzatuko dute, bideoa grabatu eta flash-mob erraldoi bat osatzeko.

Erraldoi eta buruhandiak egunero izango dira eta aurtengainera, herriko gazteak izango dira hauek eramango dituztenak, "Ostargi konpartsa berria izango baita honen ardura hartuko duena".

Zezen suzkoak, ostiral, igande eta astelehenean izango dira. Larunbatean Kataluniako Corefoc bat zer den ezagutzeko aukera izango da eta festei amaiera emateko, su artifizialak botako dira Atsobakar parkeetik.

Musika taldeei dagokionean, izen azpimarragarrienak, Esne Beltza eta Vendettaren kontzertuak ostiral gauetan eta Berri Txarrakena larunbatean.


Hala ere, beste hainbat taldek haien ikuskizunak eskainiko dituzte, Boston Jai, Laiotz, Odolaren Mintzoa, Estrikina, Joxpa, Ibai Berriak, London orkestra,...

### Omenduak

"Azken urteetan egin moduan, Udalak herriko elkarte edo kolektiboak omentzea erabaki du, urteetan egin duten lanaren aitortza gisara eta bide horretan jarraitzeko bultzadaxo bat eskaintzearen".

Omenduak izango dira Texas futbol taldea bere 50. urteurrenean eta Kukuka antzerki eta dantza eskola antzerkia eta dantza haur zein helduen artean sustatzeko egiten duen lanagatik.


Azkenik, San Pedro jaiak iragartzeko kartel lehiaketara aurkeztutako 30 lanen artean, Elena Dominguez lasarteoriatarrena izan da hautatua.



**ETORRI GURE  
ESKAINITZA  
BEREZI ETA BERRIAK  
IKUSTERA!**

www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxes: 943 372521



**469€**  
**429€**  
**849€**  
**1.049€**  
**1.199€**  
**1.490€**  
**429€**  
**79€**  
**399€**

**TAE 0%**

Neure kabuz



Unai Muñoa

Lasartetik Uhartera!

Euskaldunok gaitasan berezia izan dugu gutarrak bereizteko orduan, bereziki norbere minetan gotortuta bizi izan garen garai gogorrenetan. Orain badirudi kopeta ageri zaigula lubakiaren goikaldetik, guda eremua gainbegiratu eta plazara irteteko behar beste berme ba ote dagoen ziurtatu nahian edo. Baina, nortzuk garen gutarrak eta nortzuk ez argi daukagu, oraindik orain.

Mila lasartear inguru ados jarri ziren Euskal Herriaren erabakitzeo eskubidea aldarrikatzeko, elkar esku-tik heldu eta giza-kate erraldoi baten bidean, herri gisa geure geroa marrazteko eskuak lotzen dizkiguten kateak hausteko ideian.

Independentziaren aldeko zein aurkako buru guztiak estaltzen dituen aterkia behar luke, ez baitu helburua aldarrikatzen, erabateko demokrazia ariketa bat, baizik. Ez du gizartea zatitzen, kontrakoa, ia zatituta dagoen herri bati bat egiteko aukera eman nahi dio, gehiengoan zilegitasunez.

Kolore anitzeko koadroa osatu genuen, marko bakarrean kabitzen dena, errealtate jakin bat islatzen duena. Gutarrak direnak eta ez direnak batzen dituen. Denok gara herria. Denok gara etorkizunaren gizona. Denona da erabakia eta hitza.

Eskuz esku sentitu genuen ilusioa, festa giroa, esperantza, borondatea, errespetua... Ez genuen ondokoari eskua emateko errezelarik, ez eta elkarren idearioa epaitzeko gogorik, herri indarra garraiatu nahi genuen eskuz esku, irriz irri, herriz herri...

Etxean geratu zirenak, guztiz inplikatzeko beldur direnak, ukatzen gaituztenak... Denek izan behar dute bidai-lagun. Urte asko joan zaizkigu lubakietan eta galdutako minetan. Badirudi Estatuak ez duela treguarik emango, eta esku-burdinekin eten nahi duela demokraziaren giza-katea. Baina, alferrik dabilta. Gero eta gehiagok argi daukagu: Gure esku dago!

Zorion agurrak



Andrea

Zorionak zure 5. urtebetetzean. Ondo ospatu zure festa. 5 muxu potto-lo familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu!



Aitor

Zorionak polita! Ondo ondo pasa zure urtebetetze egunean. Denen partetik. Muxu handi bat.



Naiara

Zorionak printzesa!! Sei txokomarrubizko muxuak gurasoen partetik.



Ibai

Zorionak maittaa, zure gurasoen partez!



Ariane

Zorionak! Aurten bai bostekoa! Ondo pasa zure eguna! Bost muxu! Maite zaitugu! Katixa, aiatxo eta amatxo.



Jokin

Aitona! Muxu handi bat eta ZORIONAK!



Aitona Joxe

Jokin biloba maitia ZORIONAK! konturatzeko 8 urte bete dituk!



Ekain

Zorionak zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat famili osoaren partetik.



Aitor

Zorionak! Ttakuneko guztien partetik.



Goretti

Bagenekien lortuko zenuela. Zorionak! Zure familiaren partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Garajea saltzen da erdialdean, Zapategi kalea. 14 metro karratu. 22.000 euro. Telf: 607 491 663, Aritz.

Salerosketak

• Estreinatuta gabeko tableta saltzen dut. 7", Nevir markakoa. 200 euro negoziagarri. 680 983 527, Carlos.

Lan-eskaria

• Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Harremanetarako 677 356 413.  
• Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun

eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest ere. 943 404 015 / 606 661 048

• Pertsona arduratsu eta esperientzia zabala duena pertsona adinduk edo gaixoak zaintzeko eskaintzen da. Tratu ona. 680 983 527, Carlos.

• Lana bilatzen dut interna edo externa bezala haur edo pertsona helduak zaintzeko. Esperientziarekin. Harremanetarako, 600 334 021.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

• Ane Bartolome Garcia, maiztazaren 30ean.



Heriotzak

• Paco Buldain Arocena, ekainaren 7an, 82 urte zituela.  
• Margarita Piendo Alfonso, ekainaren 5ean, 99 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 15	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Larunbata, 16	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Igandea, 15	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astelehena, 16	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteartea, 17	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteazkena, 18	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Osteguna, 19	Urbisondo, San Frantzisko 1	943 366567

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Aizpuru, Latxunbe Berri 11,  
Hernani, Tel.: 943 336 077

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kirroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azumendi, Nerea  
Ezaguirre, Jon Altuna E.  
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:  
Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mañu Amutu,  
Aster Odriozola, Jone M.,  
Hernandez, Jexux Artetxe, Pako  
Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

## UDALA

# PSE-EEK bilkura utzi zuen

## Somoto auziaz informaziorik eza salatu zuen Zaballosek

Astearteko udalbatzarrean Somoto auziaz galdetu zuen Jesus Zaballosek galdera eta erreguen txandan. Alkateak abokatuaren azterketaren zain daudela erantzun ostean, PSE-EEKo bozeramaileak "alkatearen erantzun eta gardentasun falta jasanezina" dela esanaz, utzi egin zuen bere taldeko kideekin udalbatzarra. Alkateak bere egonezina azaldu zuen honen amaieran, oposizioko alderdiak erakutsitako jarrerarekin.



Bilkura amaitu baino lehen joan ziren batzarretik PSE-EEKo ordezkariak.

## TXINTXARRI

**A**lkateak bilkura hasi zuen batzarrean hitza hartzeko aurrerantzean izango diren irizpideak azaltzen. Astearteko ohiko bilkuran ez ziren PPko ordezkariak, PSE-EEKo Nerea Artamendi eta adskribatu gabeko Marisa Zubiri zinegotziak egon.

Nerea Sanchezek adierazi zuen udal plangintzarako aholku batzordean herriko 15 elkarteetako kideek parte hartuko dutela. Lehenengo bilera ekainaren 24ean izango dute.

PSE-EEK auzo merkatua weba gauzatzeko mozioa aurkeztu zuen ondoren. Eskatu zuen herriko merkatariekin, web bat osatzea herriko dendetan herritarrek erosketak etxetik egin ahal izateko "ordutegiengatik herriko dendetan erosketak egiteari uko egin behar

diote askok eta merkatalgunetara jo denden kaltetan".

Gorka Lizarragak "Tratu On bat"-en baitan, weba eginda dagoela esan zion. Hasiera batean herriko dendek eskaintzak azalduko direla baina merkatariek erabakiko dutela, zein pauso eman.

Alkatearen kalitatezko bozkarekin, bertan behera geratu zen.

Jarraian, Bilduk Euskal Kutxen etorkizunari buruzko mozioa aurkeztu zuen eta EAJk honi emendakina jarri zion. Horrela izanda, biak bozkatu eta bertan behera geratu ziren.

### PSE-EEren galderak

Jesus Zaballosek galdera eta erreguen txandan, hainbat galdera egin zituen. Lehenengoa Somoto auziaz. Alkateari informazioa eskatu zion Castells abokatuaren azterketaz.

Alkateak abokatuari eperik ez zaiola jarri esan eta Zaballosen haserre eragin zuen "gai honekin zer egingo den jakin nahi dugu eta gardentasunaz asko hitz egiten du udal gobernu honek baina lehenengoak informazioa ez ematen zuek zarete" altxa eta taldeko kideekin batera bilkura utzi zuen.

Aurretik alkateak eta zinegotziek erantzun zituzten sozialisten galderak. Besteak beste, giza katean udalaren garabia zergatik erabili zen galderari, honen erabilerrako ezarritako dauden tasak aplikatu zirela esan zuen alkateak. Udaleko langileen antolamendurako prozesuaz, Zaballosek ataletako buruek hau gelditzea eskatu dutela eta alkateak, "prozesua findu baina hasitako lana bukatzea da gure helburua".

## ELKARTASUNA

## Ostateren jaialdia Bolivieren alde

Ostare taldeak elkartasun jaia antolatu du ADSIS fundazioak, El Alto Bolivian garatzen duen UTASA proiektuarentzat dirua biltzeko. "Irriak elkarbanatzen" lelopean Brigitarren plazan 11:00etatik 19:00etara haurrentzako pultserak egiteko tailerra, txapa tailerra, aurpegiak margotzekoak izango dira.

Tonbola solidarioa egingo da eta bizikleta bat zozketatuko da honetan. Taberna ere jarriko da pintxo eta bizkotxoekin. Maiatzaren 24ean egitekoa zen jaialdi hau baina eguraldi kaxkarrak zela eta, eguna aldatzea erabaki zuen antolakuntzak.

## KONTZERTUA

## Albokaren emanaldia bihar

Alboka Abesbatzak kontzertua emango du bihar larunbata, Ama Brigitarren komentuan 20:00etan.

Albokak lehenengoz hainbat kanta eskainiko ditu larunbaterako kontzertuan. Stabat Mater piezaren hiru zati eskainiko ditu, Behin edo behin kanta, Afrika 80. eta 90. hamarkadetan Toto kantariak hain ezagun egin zuen kanta eta azkenik, Haitiko pieza bat ere abestuko dute Wangol.

Hauetaz gain, beste kanta batzuk ere eskainiko dituzte perkusioan Maider Errasti, Iker Olano eta Carolina Muñozen laguntzarekin. Pianoan Amaia Dorronsoro izango da. Sarrera doan da eta honetara gerturatzeko gonbitea egiten diete herritarrei Alboka abesbatzako kideek.

## IRTEERA

## Seignosseko aquaparkera txangoa

Ikasturteari amaiera emateko, ekainaren 25ean Amaraun eta Gazte klubekoak, LH2-LH4koak Seignosseko aquaparkera joango dira. Zumaburutik aterako dira 10:00etan eta bazkaria eta merienda, txankletak, bainujantzia, toaila, krema eta osasun txartel europearra beharko dute.

Izena emateko azken eguna ekainaren 20a izango da eta Ttakuneko bulegoan egin beharko da. Izena ematerakoan, gazte txoaren eta aita edo amaren nortasun agiriaren fotokopiak beharko dira. Baita baimena sinatuta ere. Irteeragatik, 33 euro ordaindu beharko dituzte ez bazkideek eta Ttakuneko bazkideek 30 euro.

## SAN PEDRO JAIK

## Zikero afarirako txartelak salgai

San Pedroetan ohi bezala Ttakunek zikero afaria antolatuko du ostiralean, ekainak 27, Okendo plazan. Honetarako elkarteak txartelak salgai jarri ditu 20 eurotan Jalgin eta Ttakuneko bulegoan bertan. Antolatzaileek parte hartu nahi duten herritarrei ahalik eta lasterren eskuratzea gomendatzen diete.

# Rocioko Ama Birginaren omenezko erromeria asteburuan

**H**erriko Semblante Andaluz elkarteak Rocioko Ama Birginaren omenezko XXI. erromeria antolatu du. Astelehena izan zen egun handia eta Huelvako herrixkan egotarik izan ez zutenek herrian euren omenalditxo egingo diote Ama Birginari.

Asteburu osoan zehar hamaika ekintzez gozatzeko aukera izango dute Atsobakar parkera gerturatzen diren guztiak.

Larunbatean eguerdian emango zaio hasiera festari irekiera ekitaldiarekin.

Jarraian, 12:30 aldera, Merche Montes abeslariaren emanaldia izango da. Arratsaldean, 17:00etan, inguruko Andaluziar etxe ezberdinetako abesbatzen emanaldiaz gozatu ahal izango da.



Aurten ere erromerian eramango da Rocio Ama Birgina Atsobakarreraino.

Iluntzean, 21:30ean, Semblante Andaluzeko, Amigos del Sur taldearen kontzertua izango da lehenengo jai egunari amaiera borobila emateko.

### Meza nagusia

Ilgandean berriz, 11:30ean meza rozieroa egingo dute Semblanteko lagunek Zumaburuko Arantzazuko Amaren

parrokian eta honetan Semblante Rociero taldeak hainbat kanta eskainiko ditu.

Parrokiatik, Ama Birginarekin aterako dira eta Kale Nagusitik, Donostia etorbidea eta Atsobakar parkeraino erromerian eramango dute kanta, musika eta txalo artean.

13:45ean, ohorezko ardoa deiturikoa eskainiko diete agintariei eta ongi etorria emango zaie gonbidatuguztiak.

Bazkaldu ostean, ekitaldiak hasiko dira berriz.

16:30ean Semblante Andaluz elkarte taldeen emanaldia izango da baita gonbidatutako inguruko andaluziar etxeetako taldeena ere. Kasu honetan, Embrujo de Irun, Erreterriako Concha

Rociera, Andoaingo Triana elkarte, Erreterriako Aljarafe, Arrasateko Al-Andalus eta Andoaingo Zuena elkarteak dira gonbidatuak.

19:30ean, Alegria de la Sierra taldearen emanaldia izango da.

20:30ean Ama Birginaren agurra egingo da Salve Rociera abestuz.

Azkenik, asteburu osoko jaiak 21:30ean bukatuko da agur ekitaldi batekin.

Semblante Andaluzetik herritarrek Atsobakarrera gerturatzea gonbidatzen ditu baita emanaldiez gozatzera ere.

Bereziki kanpotik etortzen diren lagunentzat, Urbilen aparkalekua izango dutela aipatu dute Semblante Andaluz elkarteak.



Zubieta edo Landaberriko taldeak ere izan dira aste honetan Manuel Lekuonako oholtzan.



Udal dantza eskolako kideek haien trebezia erakutsi zuten asteazkenean.



Sasoeta-Zumaburuko tximeleta eta mimoek ederki egin zuten dantzan haien antzerkian.

## Kultura aukera ederra

Antzerki eta dantza astea eta Udal dantza eta Musika eskolako emanaldiak izan dira

**Aste honetan Manuel Lekuona kultur-etxean kultura eskaintza anitza izan da astean zehar. Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideen asteaz gain, Udal dantza eta Musika eskolako lagunek ere haien trebezia erakutsi dute.**

koreografiak ikusi ahal izan zituzten aretora hurbildu ziren herritarrek.

### Musikan barrena

Bestalde, emanaldi berezia izan zen atzo Manuel Lekuona kultur-etxeko hitzaldi aretoan.

Udal Musika eskolako kideek kamara eta piano erakustaldia egin zuten. Baina musika entzuteaz gain, musikaren historia edo egileei buruz ere ikasi ahal izan zuten entzuleek.

Hau ez da Musika eskolako kideak oholtzan ikusiko ditugun azken aldia. Izan ere, hurrengo asteazken eta ostegunean ikasturte amaierako emanaldiak izango baituzte.

### TXINTXARRI

**A**ntzerki eta dantza astea amaitzen da. Asteburu honetan izango dira heldu, gazte eta Dantza Blai! emanaldiak Manuel Lekuona kultur-etxean.

Baina astean zehar Manuel Lekuonara hurbildu diren lagunek antzerki ugari ikusteko aukera izan dute. Landaberri ikastolako LH4, LH5 eta DBH 3-4 mailetako gazteak, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko lagunak edo

Zubietako taldeak izan ziren oholtzan.

Dantzarako tartea ere izan da, DBH 3-4 mailetako ikus-kizunarekin.

### Dantza

Dantzarekin jarraituz, asteazken arratsaldean, berri, dantza garaikide eta balletaz gozatzeko aukera izan zen Udal Dantza eskolaren eskutik.

Hala nola, untxiak, piratak, deabrutxoak, New York-New York, izeneko



Musika eskolako ikasleek piano eta kamara entzunaldia eskaini zuten atzo. Musikaren historian barreneko ibilaldia izan zen.

# Elikadurari arreta jartzeko konpromisoa

Herriko ikastetxeetako ikasleek elikaduraz azterketa egin dute ikasturtean zehar

**Lasarte-Oriako Agenda 21 egitasmoan herriko Lehen Hezkuntzako bi ikastetxeek parte hartzen dute. Guztira 1.281 ikasle dira partaide eta aurten zein datorren urtean, elikadura jasagarriaz hausnarketa egitea egokitu zaie. Ikasturte osoan zehar egindako lana aurkeztu zieten asteazkenean udal ordezkariari udalbatzarrean.**

## TXINTXARRI

Ikasturtean zehar lan handia egin dute Landaberri eta Sasoetako ikasleek Agenda 21 egitasmoaren baitan. Aurten elikadura jasagarria izan dute aztergai.

Ikasleek banan-banan azaldu zizkieten udal ordezkariari euren azterketaren ondorioak, hartutako konpromisoak eta udalari zuzendutako eskaera eta proposamenak. Hauek adi entzun zizuten Pablo Barriok, Nerea Sanchez Ingurumen eta Boris Nogales Hezkuntza zinegotziak. Hauekin Xabier Goitia Hezkuntzako teknikaria egon zen.

Proposamenen artean, informazio kanpainak gauzatu eta herriko aldirikarri, TXINTXARRIN, publizitatea eginez zabaltzea eskatu zuten: esne makinaren erabilera indartzeko, bertako produktuak kontsumitzearen alde eta oro har ingurumenarekin lotuta dauden gaien alde.

Bestalde, denda handiek in hitz egin eta janaria bota ez dezaten eskatu zuten ikasleek, "beharra dutenei bideratuz".

### Herriko denden sustapena

Denda txikien eta azokan defentsa egitea eskatu zieten udal ordezkariari. Herriko dendak indartzeko, zozketak, aparkalekuak hobetu, zergak jaitsi... Hain zuzen ere, "Tratu On Bat" egitasmoaren helburuak horiek direla azaldu zien alkateak.

Azoka egun gehiago ere jartzea proposatu zuten, asteazkenaz gain, "larunbata goiza aproposa izan daiteke". Bertan baserriarren produktuak egotea bermatzea eskatu zuten. Beste herrialdetako produktuak ezagutzeko azoka bereziak interesgarriak direla esan zuten.

Zentzu honetan Udalak zenbait erabaki hartu dituela azaldu zuten zinegotziak, tartean baserriarren postuen aldeko neurriak hartuta. Beste herrialdeetako jakiak Aniztasunaren Astearen baitan azoka egin zela aipatu zuten eta jaietan aukera egongo dela aurreratu.

Produktu ekologikoen kontsumoa sustatzearen inguruan, zinegotziak aukera ona dela aipatu zuten baina bertako produktuen aldeko apustua egitea dela garrantzitsua. "Produktu ekologikoak herrialde ezberdinetatik iristen zaizkigu eta gurean gero eta ekoizle gehiago dago, garestiagoa izan arren, hauen alde egitea denentzat onuragarria da," aipatu zuen Sanchezek.

### Baserriarrak lagundu

Herriko baserriarrei erraztasunak eman behar dizkietela esan zuten ikasleek, azoketan lekua eginez edota zergak gutxituz. Orokorrean, nekazaritza jarduerak sustatu beharko lirake ikasleek ustetan.

Udal baratza publikoak jartzea eskatu zieten eta saiakera egin herriko ikastetxeetako jangeletan kontsumitzen diren fruitu eta barazkiak ekologikoak izan daitezela. Boris Nogalesek aipatu zien, egun ikastetxeetako jantokietan ematen den janaria bertako produktuekin egindakoa dela. Baratza publikoak jartzea aspaldiko nahia dela aitortu du Nerea Sanchezek "kokapena badugu eta saiaketak egin dira, datorren urtean agian aurrekontuetan partida bat honetarako gorde ahal izango da".

Ikasitako zabaltzeko konpromisoa hartu dute denek eta udal ordezkariak ikasleei egindako lan ona eskertu zieten.



Saioaren amaieran ikasle, irakasle eta udal ordezkariak argazkia atera zuten.

**ZAINZAKO  
EMAKUME  
PROFESIONALEN  
LAN BALDINTZAK  
EZ DIRA HOBETU  
DIRA.**

\* GFaren proposamena, Gipuzkoako egoitzetako eta eguneko zentroetako hitzarmen kolektiboetan, estatuko lan erreformari aurre egiteko.

\*\* LPDaren esparrian (Laguntza Pertsonalerako Diru Laguntza), zaintza pertsonaleko lan baldintzak erregulatzera bideratutako proposamenaren aurrerapena.

\*\*\* Zerga pizgarrietarako proposamena, sozietateen mozkinen gaineko zergaren aurreproiektuan, emakumeen gainordezkartza bat dagoen sektoreetako lan baldintzak hobetzeko.



Udalbatzar aretoa ikasleek hartu zuten asteazkenean.

**LABURRAK.-**



**Texas Lasartearren denboraldi amaiera**

Larunbatean Texas Lasartearra taldeko jokalariek eta bazkideak bildu ziren denboraldi amaierako bazkarian.

Honetan jubeni eta erregional mailetako jokalariek onenei eta erregularrenei eman zitzaizkien sariak: jubeni mailan sarituak Unai Tejero eta Haritz Valdemoro izan dira hurrenez hurren eta erregional mailan berriz, Josu Vicente eta Txipi.

Honetaz gain talderen babesle izan den Ventanas Alcarri-ri eman zioten oroigarri bat.

Bestalde, Texas Lasartearra taldean jokatu nahi duen kadete, jubeni edo erregional mailako gazteei gonbita egiten die taldeak ekainaren 17 eta 18an 19:00etatik 20:00etara egingo diren entrenamenduetan parte hartzera.

Taldeko arduradunek gogorarazi dute kirola egiteko arropa beharrezkoa dela.

**Spanis Dopin Giroko Porrako irabazlea**



Ostadar SKT-k antolatzen duen Giroko Porrako sariak lehenengo ostiralean banatu ziren Usurbilgo Antxeta tabernan.

Porrako irabazlea Spanis Dopin txartela izan da eta bigarren sailkatua Span in pain. Antxeta tabernak eraman zuen taberna onenaren saria, bi pertsonentzako afaria Txartel txoko jatetxean.

Eta urdaiazpikoa eraman dute honako txartelek: Katta!, Gaizka Ormazabal, Orokietak, Iara, Bobby, Arroniz, Irati Olaia eta Unai Aroa. Ostadar SKT-ko arduradunek jakitera eman dutenez, gaur da urdaiazpikoak jasotzeko azken eguna. Hauek elkartean egoiztan banatuko dira 18:00etatik 20:00etara.

**KIROL AGENDA.-**

**ARETO-FUTBOLA**

Larunbata 14  
HERRIKO TXAPELKETA - FINALA  
**Kiroldegia, 17:00etan**  
 Izarra bitxitiega-Balardi harategia  
Kontsolazio Finala  
**Kiroldegia, 18:30ean**  
 Txindoki-Izkiña  
 Finala

**ATLETISMOA**

Larunbata 14  
**Araia, Araba, 00:00etan**  
 Herriko hainbat atletek XIX. Hiru Haundiak proban parte hartuko dute.  
**Donostia, 11:00etan**  
 Herriko hainbat atleta ATECE lasterketa solidarioan izango dira.  
**Anoetako miniestadioa, Donostia, 16:30ean**  
 LOKEko gazteek Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.  
 Iganganda 15  
**Anoetako miniestadioa, Donostia, 09:30ean**  
 LOKEko gazteek Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.  
**Donostia, 10:00etan**  
 Herriko hainbat atleta Donostia Fit

Race proban izango dira lehian.  
**Herrera, Donostia, 10:30ean**  
 Herriko hainbat atletek Herrera herri krozean parte hartuko dute  
**Oiartzun, 10:30ean**  
 Herriko hainbat atleta "Intxixu Trail" Oiarzungo I. Mendi Lasterketa, izango dira.

**JUDOA**

Iganganda 15  
**Kiroldegia, 9:30ean**  
 LOKEko judoek ikasturte amaierako erakustaldia eskainiko dute.

**GIMNASTIKA**

Azteratua - Larunbata 21  
**Kiroldegia, 11:00etan**  
 LOKEko gimnastek ikasturte amaierako erakustaldia egingo dute.

**IGERIKETA**

Larunbata 14-Iganganda 15  
**Bartzelona**  
 Buruntzaldea IKT-ko Mikel Esnal igerilariak Bartzelonako Mare Nostrum Nazioarteko trofeoan parte hartuko du.

**ARETO-FUTBOLA.-**

**Txindoki eta Izkiña finalean**

Herriko txapelketako finalak jokatuko dira bihar kiroldegian

**Kirol denboraldia amaitzen ari da guztientzat. Oraingoan, herriko areto-futboleko txapelketako taldeei dagokie atsedena hartzea. Baina lehenik, finalak izango dira. Hitzordu garrantzitsua beraz, bihar 17:00etatik aurrera, kiroldegian.**

**TXINTXARRI**

Azaroan hasi zen Lasarte-Oriako areto-futbol txapelketa. Hamahiru taldek eman zioten hasiera eta pixkanaka zerrenda murritzten joan da. Azken asteetan kontsolazio eta play-offetako kanporaketaz gozatu ahal izan da kiroldegian. Orain finaletako eguna iritsi da eta honetan Txindoki eta Izkiña tabernetako taldeak izango dira protagonista nagusiak.

**Kontsolazioa**

Arratsaldeko 17:00etan hasiko da areto-futbolaren jaia kiroldegian kontsolazio finalarekin. Honetan Balardi



Txindoki tabernak iaz irabazi zuen txapela. Izkiña tabernak titulua kendu nahi dio.

eta Izarra taldeak izango dira aurrez aurre.

Lehengo asteburuko norgehiagoketan Balardi 2-1 irabazi zion Urdaneta H.K. taldeari. Izarra berriz 4-1 gailendu zen Ildari taberna taldeari.

Final handia baino lehen, 17:45ean, Jalgune elkarteko lagunek lehiaketan parte hartu duten taldeetako kideez osatutako talde mistoaren aurka jokatuko dute partida.

**Final Handia**

Aurreko asteburuan, finalerdia jokatuko ziren kiroldegian. Ostiralean Izkiña eta El Punto

taldeen arteko buruz buruko izan zen eta larunbatean, berriz, Txindoki eta Buenetxearen arteko partida.

Bietan talde bat izan zen nagusi. Izkiñak 6-2 irabazi zion El Puntori eta Txindokik berriro ere, finalerako txartela eskuratu zuen 7-1 emaitzarekin Buenetxea iazko azpitxapeladuna kanporatuz.

Era honetara, final handian, iazko txapelkun Txindoki tabernak Izkiña taldea izango du aurrez aurre. Partida interesgarria kiroldegiko kantxan 18:30etatik aurrera ikusi ahalko dena.

**PILOTA**

Larunbata 14  
**Kiroldegia, 16:30ean**  
 Lasarte-Oria-Alegi Herriarteko txapelketa.  
 Eskuz binaka.



SAN PEDRO JALETAKO TXAPELKETA

**Loidi-Barren pilotalekua, goiza osoa**  
 Binakako esku pilota eta emakumezkoen pala txapelketako laugarren jardunaldiko partidak ikusgai.

Iganganda 15

SAN PEDRO JALETAKO TXAPELKETA

**Loidi-Barren pilotalekua, goiza osoa**  
 Binakako esku pilota eta emakumezkoen pala txapelketako laugarren jardunaldiko partidak ikusgai.

**ERRUGBIA**

Larunbata 14  
**Zarauz, 11:00etatik aurrera**  
 Beltzak Ostadar eskolako gazte, guraso eta Beltzak-eko beteranok denboraldi amaiera jaialdia egingo dute Zarauzko Errugby taldearekin batera.

**BTT**

Larunbata 14  
**Kanpezu, Araba, 07:00etan**  
 Herriko hainbat txirrindulariek Eusko Bike Challenge proban parte hartuko dute.

**TXIRRINDULARITZA**

Larunbata 14  
**Eibar, 10:30etan**  
 Buruntza zpi txirrindulariek Buruntza zpi txirrindularitzaren eskolako kadeteek San Antonio Saria-Honorio Agirregabiria Oroimenezkoan parte hartuko dute.  
**Zumaia, 16:30etan**  
 Buruntza zpi eskolako alebin eta infantilak Zumaia Sarian lehiatuko dira.  
 Iganganda 15  
**Biyak Bat elkartea, 08:00etan**  
 Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak Zumarraga egingo du irteera.



## Agenda

Larunbata 14 eta igandea 15, Atsobakar parkea



### Rocioa Lasarte-Orian

Semblante Andaluz elkarteak XX!. Rocioko Erromeria antolatu du. Larunbata eta igandean, Rociora hurbildu ezin izan diren herritarrek, bertako xarmaz gozatzeko aukera izango dute herrian. Dantza, musika eta Andaluziako produktuak dastatu ahalko dituzte Atsobakar parkera hurbiltzen diren herritarrek.

#### Larunbata 14

12:00etan, Erromeria hasiera.  
12:30ean, Merches Montesen emanaldia.  
17:00etan, Gonbidatutako etxeetako koru ezberdinen emanaldia.  
21:30ean, Amigos del Sur taldearen emanaldia.

#### Igandea 15

11:30ean, Semblante Rociero koruak girotutako meza rozieroa Arantzazuko Amaren elizan.  
12:30ean, Amabirginaren irteera Atsobakar parkera.

13:45ean, Autoritate eta gonbidatuei ongietorria. Oho-rezko ardoa.

16:30ean, Semblante Andaluzeko eta talde gonbidatuen emanaldia.

19:30ean, Alegria de la Sierra taldearen emanaldia.

19:30ean, Amabirginari agurra "Salve Rociera" erromerira hurbildutako guztientzat.

21:30ean, Festa amaiera.

Igandean, aparkalekua Urbi-len Erromeria parkearen ondoan.

## Lasarte-Oria

### Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 13, 22:00etan

Ame Agari eta Hell Divion taldeekin berdurra pasatzeko gaua. Sarrera, 5 euro.

Ostirala 13, 00:00etan

Possitive Reggae gaua izango da. Ghetto Solja abeslaria, Djplan Kunta Kunta Di Fyah eta Ghetto Fyah Sound Sytmen dj-a eta Boja man eta Gustab aleslariarekin gozatzeko gaua. Sarrera, 4 euro.

Larunbata 14, 00:00etan

Old School Sessions taldeko Kapi dj-aren eskutik hip hop eta funk saioa.

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Larunbata 14, 20:00etan

Alboka Abesbatzak ikasturte amaierako kontzertua eskainiko du.

### Antzerki eta dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 13, 22:00etan

Gaspe taldeek Izarren argia antzezlan eta dantza garaikideko pieza berezi bat aurkeztuko dute.

Larunbata 14, 20:00etan

Helduen taldeek dantza garaikide saioa eta Klaketak klak antzerkia eskainiko dute.

Igandea 15, 12:00etan

Dantzaz Blai! Eguna Euskal dantza eta Euskal dantza-Sorkuntzako dantzak.

Igandea 15, 19:00etan

Dantzaz Blai! Eguna dantza garaikide emanaldia.

Emanaldi guztietan sarrera, 1 euro.

Igandea goizeko Dantzaz Blai! emanaldiko txartelak bi ordu lehenago salgai.

### Elkartasun jaialdia

AMA BRIGITARREN AURREAN

Larunbata 14, 11:00etatik 19:00etara

Ostare elkarteak Irriak elkarbanatzen

elkartasun jaialdia antolatu du. Tailerrak, tonbola, taberna... izango dira.

### Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ekaina amaiera arte

Euskal Herriko 2. Batukaden Topaketako argazki erakusketa ikusgai izango da.

EMAKUMEEN ZENTROA

Maiatzaren 16tik ekainaren 27ra

Gehituk antolatutako "Emakume eta gizon homosexualak historian zehar" erakusketa ikusgai.

## Herritarren txokoa

### Bidaia abuztuan Italiara

Lasarte-Oriako talde batek eta abuztuaren 2tik 12ra Italiara bidai bat antolatzen ari da. Bidai honetan, Siena, Napoles, Vesubio, Pompeya, Capri eta Roma ezagutuko dituzte.

Bidaia literadun autobus batean egingo dute eta gau gehienak bertako hoteletan pasako dituzte.

Informazio gehiago nahiez gero, deitu 638 051 794 telefonora edo e-mail bat bidali [lasartetaldea@gmail.com](mailto:lasartetaldea@gmail.com) helbidera.

Taldeak herritarra animatzen ditu, "primeran pasako dugu eta!!".

### Zabaleta jaietako zozketa

Zabaletako jaietan Goiegi jatetxean 4 bazkariren zozketa egin zen. Zerbaki onuraduna 3.481 da. Auzoko elkartearekin jarri behar da harremanetan txartelaren jabea.

### Galdutako pultsera

Haur baten urrezko pultsera bat aurkitu dut inskripzio bat dauka. Deitu 620179188 telefonora. Izaskun

### Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858  
[txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)

### Eskutitza

Prentsa lokaletik jakin det alkateak epe bat ireki duela herriko elkarteek euren proiektuak eta espazio beharrak aurkeztu ditzaten udalak hutsik dituen lokalak bat eskuratu ahal izateko. Irakurri eta irakurri egin det eta aho zabalik geratu naiz, eta zergatik ez esan, nire onetik ere atera naiz. Izan ere, egun zuzentzen dudana Ogasuna eta Ondareko Departamentuak, zeinaren funtzioen artean udal ondasunaren kudeaketa eta administrazioa dagoen (bere ondasunen permutak, salerosketak, alokairuak, lagapenak, kontzesioak, besteak beste.), ez du horren berririk.

Zein lokal eskaini nahi diren ere Departamentu honek gaur egun ez daki, ezta bertan jarduera jakin batzuk aurrera eramateko baldintzetan ote dauden ere. Ezer ere ez. Alkateak horrelako deialdiak egiteko eskuduntza izanda ere, iruditzen zait ardugabekeria izugarria dela herritarrek deitzea eskaera bat egin dezaten oraindik horren prozedura eta kudeaketa definitu gabe dagoenean.

Nire obligazioa da epea irekitzen

### Kudeaketa versus Demagogia

zaien elkarte horiei abisatzea, aurren oso zaila izango dela lokal bakar baten lagapena kudeatu ahal izatea, izan ere, zein lokal kudeatuko diren erabakita ez baitago, eta zein egoeratan dauden edota ze esleipen prozedura mota jarriko ote den martxan ez baitago oraindik definituta.

Laburbilduz, burugabekeriako kudeaketa baten aurrean gaude non, gainera, "izorratzailearen figura" neroni izango naiz, hain zuzen administrazio garden, zuzen eta zintzo bat aurrera eramaten saiatuko naizelako.

Hobe luke alkate jaunak aurrekontuetan onartuta dagoen hori eta gehiengo politikoa duen hori betetzea: Ekintzaile gazteei lagatuko zaizkien Euskaltegi zaharreko bulegoen berritze lanak martxan jartzea hain zuzen ere.

Hobe luke ere bai, hiru urtez alokairuan atera ezinik dauden Okenoko 100dik gorako garajeen inguruan dagoen korapilo juridikoa lehenbailehen askatzea.

Dena dela, alkate jauna, eskertuko nizuke demagogia alde batetara uztea.

Partaidetza eraikitzailea nahi baduzu, ez zaitetz saiatu ezer inposatzen, eta aldi gainontzeko alderdiekin adostasunetara iristen ahalegindu zaitetz eta, jakina, inplikaturak dauden departamentuak eta teknikariak aurrez kontsultatu zure kaxa erabakirik hartu baino lehen.

Estitxu Alkorta  
EAJko bozeramailea eta Ogasuna eta Ondareko batzordeburua

# Kulturartekotasuna lantzeagatik saria

Burunzpe Guraso elkarteak kulturartekorasun arloan lan egin du ikasturte osoan zehar

**Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Burunzpe Guraso elkarteak EHIGE-k, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak erkidego mailan antolatzen duen Guraso Elkartearen hezkuntza-jarduera onen 4. lehiaketan garaile izan da aurten. Kulturartekotasuna lantzeko egin duten proiektua saritu dute eta elkarteko Oscar Barredo eta Dyan Monterorekin solasaldia izan dugu saria eta kulturartekotasunaren alorrean egiten ari diren lanari buruz.**

TXINTXARRI

**B**urunzpe Guraso elkartearen Kulturartekotasun batzordeak urte eta erdi darama lanean. Tarte honetan hainbat jardura eraman ditu aurrera, kulturartekotasun astea horien artean.

Oscar Barredak batzorde honen sorrerari buruz hitz egin digu, "ni duela lau urte sartu nintzen eta aurretik hiru pertsonak bakarrik antolatzen zuten guztia. Nirekin batera hamabost bat guraso sartu ziren eta hasieran egitura sortu genuen kudeaketa egiteko. Ostera, pixkanaka beharren arabera beste batzorde batzuk sortu genituen".

"Ikastetxean 21 herrialde ezberdinetako haur eta gurasoak zeudela konturatu ginen eta bertakoentzat zaila bada guraso elkartearen parte hartzea, kanpotarrentzat oraindik zailagoa dela. Zailtasun gehiago dituzte baina ikastetxean kolektibo handia zen eta injustizia bat zen haien seme-alaben hezkuntza ezin parte hartzea", aipatu du.

Kulturartekotasunaren batzordearen helburua "guraso immigranteak edo kultura ezberdina duten gurasoek eskola bizitzan parte hartzea eta zer esana izatea da" azaldu digu.

## Oztopoak

Dyan Monterok aipatu duenez, "guk oztopoak aurkitzen ditugu bertan parte hartzeko eta hori gainditzea zaila izaten da. Oscar eta biok futbollean jokatu genuen bitan eta bigarrenean hitz egiten hasi

ginen. Orduan sortu ziren ideiak eta beste guztia bakarrik etorri zen".

Oscarrek onartu duenez, "hasieran galdu xamar ginen, Dyan sartu zen guraso elkarteko batzordean eta Kubakoa den beste guraso bat ondoren. Pixkanaka ekintzak antolatzen joan ginen. Guk ekintzak egin nahi genituen baina ez genekien nondik jo".

Eta Dyanek azaltzen duenez, "beste arazoetako bat hizkuntza da, euskaraz hitz egitea beharrezkoa dela uste dute, baina ez da beharrezkoa euskaraz jakitea, gehienek gaztelerez hitz egiten dugu".

## Ekintzak

Urtean zehar, hainbat ekintza burutu dituztela azaldu digute, gurasoen arteko futbol eta boleibol partidak eta arrakasta handia izan zuen nazioarteko bazkaria.

"Aipatu legez, Sasoeta-Zumaburu ikastetxean herrialde ezberdinetako pertsonak daude eta gastronomian aberatsak eta oparoak dira. Horregatik bakoitzak bere jatorriko plater bat prestatu behar izan zuen, azaldu eta besteekin elkarbanatu".

Aurten kulturartekotasunaren bigarren jaialdia ospatu dute. "Lan handia egin genuen eta orain fruituak ikusten ari gara. Erantzuna oso ona izan da".

Azken ekintza bat ere antolatu zuten, ekainaren 7an, Altxorraren bila Santa Klara uhartearen eta 200 pertsonen parte hartu zuten honetan.



Burunzpe Guraso elkarteko kide eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko haurrek saria jaso zuten Balmasedan. BURUNZPE GURASO ELKARTEA

"Ez genuen pentsatzen hainbeste jendek izena emango zuenik, erdia edo espero genituen. Modu ederrean amaitzen dugu ikasturtea," aipatu du Dyanek.

"Irlara doazen ontzietako bat beteko genuen edo ez zen gure kezka. Baina lau izan dira eta garrantzitsuenak da atzerritar askok eman dutela izena," gaineratu du Oscarrek.

## Saria

Eta ekimen hauek guztiak sarituak izan dira. EHIGE-k, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak Guraso Elkartearen hezkuntza-jarduera onen 4. lehiaketan irabazle aukeratu zuten.

Oscarrek azaldu duenez, "saria urtean zehar egin ditugun ekintzetako txosten bati eman diote. Lanak "Kulturartekoko barneraketa" izena zuen. Bertan gure helburua ere azaltzen da, beste kulturak ezagutzeko, kultur aberastu izatea eta batez ere, gurasoei zuzendutako ekintzak egitea".

Izan ere, azpimarratzen

duenez, "haurrek ez dute ezberdintasunik ikusten. Arazo gurasoek dugu eta hori landu behar da. Herrialde, kultura ezberdinetako gurasoen arteko harremana ikustea hainbatzatu oso onuragarria eta jarraibide bat da".

Saria Euskal Eskola publikoaren jaialdian jaso zuten Burunzpe Guraso elkarteak Balmasedan, ekainaren 1ean.

"Hasiera ekitaldian izan zen. Hezkuntza, Hizkuntza eta Kultura sailburuak Cristina Uriarteren eskutik jaso genuen saria. Peio Guraso elkarteko lehendakariak, Mirena eta Salma izan ziren elkartearen izenean hitz egin zutenak. Gurasoak eta haurrak oholztan ikustea oso polita izan zen," adierazi du Oscarrek.

Hala ere, kulturartekotasun batzordeko kideen aburuz, "guretzako sari gehiago da gure ekintzek harrera ona izatea, EHIGE-k, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak eman digun saria baino".

## Gurasoen inplikazioa

Egun kulturartekotasun batzordean hamaika pertsona daude lanean.

"Talde ederra osatu dugu, nazioartekoa kolonbiar, kubatar, marokoar... Baina Guraso elkartearen 30-35 pertsona gaude guztira eta horien artean ere atzerritar gehiago ere badaude".

Dyanek azaldu digunez, "ekintzen eta egiten ari garen lanaren ondorioz, kanpoko jendea ere pixkanaka animatzen ari da eta laguntzen hasi da. Gurasoak batu behar ditu-

gu, bai hemengoak, baita atzerrikoak ere. Eta lanaren fruituetaz gozatu".

Dyanek gainera, atzerriko gurasoen bitartekari lanak egiten dituela ere onartu du, "haiek ideiak edo kezkek azaldu eta nik Guraso elkartearen azaltzen ditut. Batzuk ez baitira elkartearen sartzera ausartzen oraindik, lotsatu egiten dira eta ez dira integrazten. Ni ere berdina nintzen".

"Ulertu behar da batzuk etorri berriak direla, ez dutela inor ezagutzen... Eta imajinatu Kanadara zoazela lanera, bertako guraso elkartearen parte hartuko zenuke?", aipatu du Oscarrek.

## Lanean jarraitu

Batzordearen ideia lanean jarraitzea da baina ideiak eta giza baliabideak beharrezkoak direla azpimarratzen dute horretarako.

"Ideiak nahi ditugu aurrera egiteko, lanean jarraitzeko eta gauza gehiago burutzeko. Ez da guretzat egiten dugun zerbait, gure haurren etorkizuneko baizik. Eta kanpoko gurasoei gu integratu behar gara esan nahiko nieke," ohartazi du Dyanek.

Oscarrek giza baliabideak dituzte kontuan, "oso kontziente izan behar gara elkartearen baliabideez. Aurten kulturartekotasun astean ekintza pila antolatu genituen eta larri ibili ginen".

Horregatik, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko bertako, zein atzerriko gurasoei dei egiten diete. "Guztiak animatzen ditugu parte hartzera eta ideiak ematera. Hurrengo ikasturtea, indarrez hasi eta ekintzak betetzeko".



Kulturartekotasuna lantzeko Kulturartekotasun astea eta beste hainbat ekintza izan dira Sasoeta-Zumaburu ikastetxean.